

7. LEHIAKETA OINARRIAK

A. SENIOR MAILAKO HONDARTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

BALDINTZAK

1. IZEN EMATE EPEA: irailaren 17tik urriaren 4ra. 10etatik 13etara eta 17etatik 19etara.

2. PREZIOA TALDEKO:

IZEN EMATEA: **460 €**

BERMEA: **90 €**

Taldea izena emanda egoteko, izen ematea eta bermea ordaintzea ezinbestekoa izango da.

3. BERMEA JASOTZEKO EPEA: txapelketa bukatu eta **30 egunera** amaituko da.

4. AURKEZTU BEHARREKO

DOKUMENTAZIOA:

- ✓ Jokalarien, ordezkarieren eta arbitroaren fitxa bikoiztuak.
- ✓ Partaideen argazki bana.
- ✓ NAren fotokopia.
- ✓ Parte hartze inprimakia beteta.

5. ADINA: txapelketan parte hartzeko gutxieneko adina 18 urte izango da.

6. JOKALARIAK: talde bakoitzean gehienez 18 partaide onartuko dira eta gutxienez 11. Jokalari berriei alta emateko epea: **abenduak 31.**

7. ARBITROA: talde bakoitzak bere arbitroa aurkeztu beharko du.

8. FITXAK: jokalari, arbitro eta ordezkarri bakoitzeko 2 fitxa egin behar dira eta txapelketako jardunaldia hasi baino 48 ordu lehenago aurkeztu.

9. ASEGURUAK: jokalari eta arbitro bakoitzak bere aseguruia izango du.

10. FITXA BERRIAK AURKEZTEA: jokalari berriak sartu ahal izateko, fitxak astebete lehenago aurkeztu beharko dira.

11. BILERA ETA ZOZKETA EGUNA: txapelketa hasierako bilera eta taldeen zozketa, **urriaren 7an, goizeko 11etan** izango da Arin Kirol elkartearen egoitzan

ARAUTEGIA

1. Partidak hasi baino 15 minutu lehenago, taldeetako **ORDEZKARIEK** akta bete beharko dute. Jokalarien izen-abizenak eta dortsal zenbakiak jasoko dira agirietan.
2. Taldea egutegiko lehenengo lekuan agertzen bada, derrigorrezkoa izango da arbitroa bertaratzea.
3. **ARBITRO** guztiek, partidak hasi baino 30 minutu lehenago hondartzako aretoan egon behar dute.
4. Arbitroak eskatuz gero, talde fitxak aurkeztea derrigorrezkoa izango da.
5. Kamisetak zenbakidunak eta taldekide



- guztientzat berdinak izango dira. Partida berean bi taldeen kamisetak kolore berekoak izanez gero, **BIGARREN TOKIAN IZENDATUTA** dagoen taldeari dagokio kamiseta aldatzea.
6. Partidetan talde bakoitzak lau aldaketa egin ditzake. Aldaketa egin ondoren irten den jokalaria ezingo da berriro jokatzerara sartu.
 7. Partidaren **LEHENENGO ZATIKO** edozein momentutan osa daiteke taldekide kopurua. Jokalari horien izenek hasieran osatutako aktan agertu beharko dute.
 8. Talde guztiek jardunaldia hasi baino 15 minutu lehenago egon behar dute dagokien lekuan. Partida jokatzeo gutxieneko taldekide kopurua 7 izango da. Gutxieneko hori bilduko ez balitz, azaldutako jokalariek hondartzako aretora bertaratu beharko dute eta euren izen-abizenak eman, zigorrik ez jasotzeko.
 9. Talderen batek jardunaldia jarraitu nahi izango ez balu, arbitroak partida bukatutzat emango luke. Talde hori txapelketatik **KANPORATUA** geratuko litzateke eta 5 URTEZ ezingo luke txapelketan parte hartu.
 10. Talde guztiei egokituko zaie jardunaldi bat jokalekua markatzeko. Horretarako, antolatzaileek esandako egunean eta orduan, **GUTXIENEZ 6 PERTSONEK** azaldu beharko dute. Jarraituko den hurrenkera, taldeak egiteko osatutako zerrenda bera izango da.
 11. Talde bakoitzak bere ate, sare eta banderatoak jasoko ditu. Jokalekua bi taldeen artean markatuko dute; area, berriz, arbitroak. **LEHENENGO** taldeari dagokio **JOKALEKUAREN ZENBATZAILEA** jasotzea.
 12. Jokalariek oinutsik jokatu behar badute ere, gomazko errefortzurik gabeko galtzerdiak erabiltzea onartuko da.
 13. Taldea txapelketatik kanporatuko balute zuzenean bermea galtzeaz gain, talde horrek sartutako golak eta puntuak ez lirateke kontuan izango.
 14. Partida bat atzeratzeko bi taldeek ados egon behar dute. Eskakizuna idatziz, bi ordezkariak sinatuta, helarazi beharko zaie antolatzaileei, jardunaldia baino 8 egun lehenago. Horrela egiten ez bada, ezinezkoa izango da jardunaldia atzeratzeko baimena eskuratzeko. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.
 15. Erabilitako atea eta gainontzeko material guztia partida amaitu eta hurrengo 15 minutuetan eraman beharko da hondartzako aretora.
 16. Partidak ezarritako orduan hasiko dira. Ordurako bertarutzen ez diren taldeek zigorra jasoko dute.
 17. Talde bakoitzak arauzko baloia aurkeztu beharko du. Adostasunik ez badago arbitroak aukeratuko du zein baloirekin jokatu.
 18. Egon daitezkeen kexa zein erreklamazioak idatziz eta partidaren aktaren kopiarekin batera txapelketa batzordeari helaraziko zaizkio, partida amaitu eta bi eguneko epean. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.
 19. Arbitroaren arautegian Nazioarteko Futbol Federazioak (FIFA) adierazitako arau berberak jarraituko dira honako hau salbu: jokoan kanpoa, arearen aurrealdeko marrik aurrerakoa izango da.
 20. Kapitainak eta ordezkariak desberdintzeko derrigorrezkoa izango da besokoa eramatea.
 21. Futbol Federazioen batean izena emanda dagoen jokalariek ezin izango du txapelketa honetan parte hartu.
 22. Talde bateko jokalariren batek txapelke-



ta honetan ez jarraitzea erabakiko balu, HIRU URTEKO zigorra jasoko luke.

23. Txapelketa bukatu ondoren BERMEA JASOTZEKO HILABETEKO epea izango dute taldeek. Epe hori bukatu ondoren bermea antolatzaileentzat izango da.

24. Fitxak Arin kirol elkartearen egoitzan egingo dira jardunaldia baino lau egun lehenago. Hondartzako aretoan ez da fitxarik egingo.

25. Jokalariren bati baja eman nahi izanez gero, taldeak 18 € ordaindu beharko ditu. Fitxak ABENDUAREN 31 arte egin daitezke.

26. Kanporaketetan ez da luzapenik egingo, txapelketako finaleko ligan izan ezik.

27. Saikapenean hiru berdinketa izango balira, ezarritako arauen arabera erabakiko litzateke saikapena.

28. Lehiaketa batzordeak EZ DU ONARTU-KO partidan zehar arbitroa aldatzea, justifikatutako kasuetan izan ezik.

ARAUTEGIA EZ BETETZEAK, KASU GUZTIETAN ZIGORRA DAKAR.

LEHIAKETA BATZORDEA



ZIGORRAK

- ✓ Arbitroa iraintzea edo mesprezuak egi-
tea: 3-10 partida jokatu gabe eta isuna.
- ✓ Arbitroa erasotzea edo erasotzen saia-
tzea: berehalako kanporatzea, 3 urteko
zigorra eta isuna ezarriko zaizkio eraso-
tzaileari.
- ✓ Aurkakoa erasotzea: 2-6 partida jokatu
gabe eta isuna.
- ✓ Aurkakoa iraintzea edo eraso bat uxa-
tzea: 1-3 partida jokatu gabe.
- ✓ Joko bortitzak, lesioa badakar: 3-8 parti-
da jokatu gabe eta isuna.
- ✓ Gaizki jantzitako jokalaria bakoitzeko:
18 €.
- ✓ Partida hasi eta 15 minutura akta ez
betetzea: 12 €.
- ✓ Akta behar bezala ez betetzea (izen eta
abizenekin): 6 €.
- ✓ Aktan zigortutako jokalaria izen-abi-
zenak ez jartzea: 18 €.
- ✓ Ordezkariek jokaera txarra izango balu-
te, isuna jasoko lukete.
- ✓ Materiala epez kanpo eramatea: 24 €.
- ✓ Jokalekua markatzera 6 pertsona baino
gutxiago joatea: 150,25 €. Taldeak txapel-
ketan parte hartzen jarraitu ahal izateko
zigor hori hurrengo jardunaldia baino
lehenago ordaindu beharko du. Antola-
kuntzari irainak: 3-10 partida jokatu gabe.
- ✓ Partida hasieran beharrezkoak diren
jokalaria ez agertzea: partida galdutzat
eta 30euroko isuna. Berrito gertatuko
balitz, txapelketatik kanporatuko lirateke.
- ✓ Lesio gogorra gertatuz gero, jokalaria
ordezkatu ahal izango da. Horretarako
beharrezkoa izango da mediku txostena
aurkeztea.
- ✓ Fitxak arbitroari ez aurkeztea: partida
galdutzat eta 30euroko isuna.
- ✓ Arbitroa ez aurkeztea: 120,20 euroko
isuna.
- ✓ Taldeari dagokio ateko sareak eta bes-
telako materiala jokalekura eramatea
eta berrito gordetzea. Arau hori betet-
zen ez duen taldeari honako isunak eza-
rriko zaizkio:
Sareak ez jasotzea: 60,10 €
Banderatxoak ez jasotzea: 12 €
Jokaleku zenbatzailea ez jasotzea: 24 €
Jasotzen ez den ateko zati bakoitza: 18 €
- ✓ Lehiaketa batzordeak erabakiko du gerta
daitezkeen bestelako arau-hausteei nola-
ko zigorra ezarri. Horretarako, futbol fede-
razioaren arautegia hartuko da kontuan

HONDARTZA FUTBOLEKO
LEHIAKETA BATZORDEA